


## Intxaurrenondoko

# Aldapan gora, aldapan behera

Ez da giro Intxaurrenondoko, Lizardi kaleko lanak direla eta. Udalak obrak hasi ditu bertan, aldapan norabide bakarra jartzeko. Auzotarrek, ordea, aldapak, erditik gora behintzat, orain arte bezala norabide bikoitza izatea nahi dute.



A. Urkizu Azuabarrena

Udalak, apirila aldera, jakinarazi zion Intxaurrenondoko Zaharreko Bizilagunen Elkarteari (IZBE) Lizardiko aldapan, zuntz optikoa sartzeko lanak aprobetxatuz, espaloia zabaldu nahi zuela. Bide batez, gaur egun autoentzat bi norabide dituen aldapan, norabide bakarra jartzeko proiektua hetafazi zuten auzotarrei.

Behin Udalaren asmoak jakinda, bizilagunen elkarteak batzarra egin zuen, eta bertan Udalarari kontraproposamena aurkeztea erabaki zen. Auzotarrak ados daude aldaparen behealdean -hau da, Zubiaurre pasealekutik Luistarren kale-raino doana- norabide bakarrekoa izatearekin. Baina, Luistarren kaletik gora, egun bezala, norabide bikoitza izatea eskatu dute.

### Lanak martxan

Kontuak kontu, hilabete hauetan guztietan auzotarrek ez dute Udalaren erantzunik jaso eta urria bukaeran, ezustean, Lizardin obrak hasita zeudela ikusi zuten. IZBE-ko kideek esan digutenez, "auzotarrok: espaloi zabaldu nahi dugu, eta obrak hasi zirenean ikusi genuen inork eskatu gabeko aparkalekuak egiten ari zirela aldapan; eta hori zela medio, espaloi estuegia egiten ari zirela. Hori gutxi balitz bezala, norabide bakarreko bihurtzen ari ziren kalea".


Egoera aztertzeke, IZBE-ko bilerak egin zituen Udalarekin eta azaroan beste batzar bat deitu zuen. Bertan, auzotarrek, behin-behineko, aldapan norabide bakarra izatea onartu zuten, baina bi eskaera egin

### Takolo, Pirritx eta Porrotx-en emanaldiak

Intxaurrenondoko Plazara Goaz Euskara Batzordeak antolatuta, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen bi emanaldi eskainiko dituzte igandean, hilak 13, Ategorrieta eskolan. Pailazoen 15. urteurrenaren ildotik prestatutako "Katxiporreta!" ikuskizun berria aurkeztuko dute. Emanaldirako sarri guztiak jada saldu daude, eta beraz, aurretik sarrera erosita dutenek baino ezin izango dute ikuskizunaz gozatu.

zizkioten Udalarari. Bizilagunek, alde batetik, espaloi zabaldu egitea ezinbestekotzat jotzen, eta bestetik, etorkizuneko aldapan bi norabide izan ditzan neurriak hartzeko eskatu zuten. Ildo honetatik, auzotarrek Zubiaurre zeharkatzen duen trenbidea estaltzeko lanak ekiten eskatu diote Udalarari. Izan ere, IZBE-ko kideen ustez, trenbidea estaltzeak aldapan bi norabidekoa izatea erraz lezake. Bestalde, Udala Luistarren kalearen eta Zarategi pasealekuaren arteko lur jabeekin harremanetan jardain nahi dute IZBE-koek. Helburua: Udalak aldaparen goialde horretan zenbait lursail erostea da, kaleak etorkizuneko bi norabide izan ditzan.

euskararen donostia



### Bertsolaritza

- Atzo eta gaurko bertsoak  
Kanta, musika, diaporama, dantza, antzerkia  
Azaroaren 22an, 20:30etan  
Kresala elkartearen

### Musika

- Abiadura handiko urte baten kronika  
Mikel Markez eta Pako Aristi  
Konzertua  
Azaroaren 22an, 20.00etan  
Loiolako Kultur Etxean
- Nazioarteko Trikitixa jaialdia  
Azaroaren 23an, 20.00etan  
Kursaal auditorioan
- Benito Lertxundi  
Azaroaren 29an, 20.00etan  
Kursaal Auditorioan

### Antzerkia

- "Ekaitz txorien eskua"  
Manuel Rivasen testua.  
Tantaka teatroa  
Azaroaren 28an 21.00etan  
Abenduaren 1ean 20.00etan
- "A, e, i, o, u"  
Deabru beltzak  
Azaroaren 30ean, 18.00etan  
Egia Kultur Etxean

